

## Hirugarren Mailan sendo

Tolosak  
2-0 irabazi dio  
Azpeitiako Lagun  
Onak taldeari ▶ 3



Harpidedunei banatua ▶ Asteartea ▶ 2006-02-14 ▶ IV. urtea ▶ 813. zenbakia ▶ [www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

# Egun ere torturatzen dela salatu dute Joxe Arregiren omenaldian

**ZIZURKIL** ▶ Torturaren Aurkako Egunean, atzo, lore eskaintza egin zioten hilobian, eta herenegun ekitaldia egin zuten bere izena daraman plazan

**DEMOKRAZIA** ▶ Askatasunaren hitzetan, «tortura estatuaren apustua da, gerra apustua; Euskal Herriaren aurka aritzeko ezinbesteko tresna dute» ▶ 4

## TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶

### Rekondok eta Otañok jarraituko dute aurrera

Ekin diote Banakako Aizkora Txapelketari; Mujika ez da pasatu ▶ 7

## TOLOSA ▶



### Itxura berria eta zerbitzu gehiago ditu hiribusak

Atzo aurkeztu zuten; errepidean ikus daiteke jada ▶ 2

## IBARRA ▶

### Ibarrak 2-3 irabazi dio Cerveranori ▶ 6



## Bozue, San Lorentzo eta Uli, hiru udaltalde berri

**TOLOSALDEA** ▶ Agenda 21 prozesuaren barruan hiru udaltalde berri sortu dira aurrean, eta hirurak eskualdekoak dira: Bozue, San Lorentzo eta Uli landa eremuko udaltaldeak. Lehenak Abaltzisketa, Altzo, Amezketeta, Baliarrain, Ikaztegieta eta Orendain hartzen ditu; San Lorentzok, bestalde, Berastegi, Elduain, Berrobi

eta Belauntza; eta Uli, azkenik, Gaztelu, Leaburu, Lizartza eta Orexa herriek osatua da, Errezilekin eta Beizamarekin batera. Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundia, Mendikoi eta Tolomendi dira proiektuaren partaide. Argazkian, udaletako eta erakundeetako ordezkariak, Donostian, atzo. N. URBIZU ▶ 5

MUGIKORTASUN PLANA ▶

# Garraio publikoko autobus berriak, jadanik errepidean

Atzo aurkeztu zuten udal ordezkariak «herritarrei zerbitzu hobea ematea» helburu duen 'Tolosan autobusean' busa, Mugikortasun Planaren baitan



Diseinu eta zerbitzu berriak eskainiko ditu Udalak atzo goizean aurkeztu zuen autobus berriak. N. LATABURU

NOELIA LATABURU

Garraio publikoak gaurtik aurrera izango duen autobus berria aurkeztu zuten, atzo goizean, Tolosako Udaleko hainbat ordezkariak. «Itxura berrikoa eta zerbitzu gehiagoz» hornitua dago *Tolosan autobusean*. Herriko koloreek osatzen dute kanpoaldea, zuria eta urdina, hain zuzen ere. Honekin batera, publikitaterako baliatuko dituzten panelak ditu atzealdean «Horietako batzuk udaletxeko

publizitatearentzat eta Tolosa 750. Urteurrena Fundazioarentzat izango dira eta besteak, aldiz, publikitatea jarri nahi dutenentzat izango da aukeran», adierazi zuen Tolosako alkate Jokin Bildarratzek, aurkezpenean. Panel informatiboak ere ditu kanpoaldean.

Barrualdea ere «mordenoa eta arauetako egokitutakoa» dute autobus berriek. «Eusko Jaur-laritzak behartzen duen Arraitasun Legearen harira, autobusak elbarrientzako bi eserleku

berezi ditu, bai eta elbarriek autobusera igo ahal izateko plataforma mugikorra ere». Motorra, halaber, Euro 3 izenekoak da eta kutsadura maila txikiagoa du; biodiesel gasoleo ekologikoaz hornitzen da, «ingurumena errespetatuz». Hain zuzen ere badu, «erabiltzaileak udan hotz eta neguan bero joan daitezkeen». Autobus berriekin herrian «jendeak kotxea alboratzeko ohitura har dezala» lortu nahi dute. «Apatzerreka industrialgunea oso

## ZERBITZUAK

Arriatasun Legearen harira, elbarrientzako plataforma mugikorrak eta bi eserleku berezi dituzte

egokia izango da zerbitzua erabiltzeko». Bildarratzen esanetan, «etorkizunerako proiektua da garraio publikoa, ziurragoa, merkeagoa eta ingurumenarentzat egokiagoa» delako.

## Mugikortasunaren alde

Helburu hauek Tolosako Udalen Mugikortasunaren Planaren baitan doaz. 2003ko abenduaren 20an jarri zuten martxan proiektua. Hasiera batean, hiru hilabetetako proba burutu zuten, eta, hortik aurrera, zerbitzu finkoa bilakatu zen. Mugikortasun Planean aintzat hartzen dira, halaber, TAO zerbitzua, bidegorria eta oinezkoentzako igarobideak. TAOren eta autobus publikoaren artean lortutako diru-sarrerak eta gastuak «orekatu» egiten dira eta, beraz, «beharrezkotzat» jo dituzte Udaletik aipatu bi zerbitzuak. Bidegorriari dagokionez, atzo bertan jakitera eman zuten, aurten ekingo diote bigarren faseari. Oinezkoak ere ez dituzte ahantziko, «guztia mugikortasunaren alde hartutako konpromisoari tinko eusteko».

GIZARTEA ▶

## Lan arloaren gaineko hitzaldia, bihar, Otsabin

Sanblasapiko Gazte Asanbladak lan arloaren inguruko hitzaldia antolatu du, bihar, Igarondo igerileku zahararen ondoan dagoen Otsabin lokalean. 19:00etatik aurrera garatuko da bilera, non, besteak beste, kontratu motak, ETTak eta langileen eskubiak izango dituzten mintzagai.

INAUTERIAK ▶

## Mikeletez ateratzeko lau plaza libre daude

Inauterietako larunbatean, haur danborradan mikeletez ateratzeko lau plaza geratzen direla eman du jakitera Aiz-Orratz elkarteak, 7 urteko haurrentzat zuzendua. Interesik dutenek etzi edo ostira-lean elkartera bertara joan beharko dute izena ematera.

ISTRIPUA ▶

## Auto ilara luzeak N-1ean, kamoi bat irauli osten

Atzo eguerdian auto ilara luzeak izan ziren Tolosa inguruan, N-1 errepidean, Gasteizerako norabidean. Kamioi batek kontrola galdu eta, ondorioz, errepidean gurutzatua geratu zen. Gidaria erietxera eraman behar izan zuten osasun zerbitzuetako langileek. Kamioiak Andoaineko autobiatik desbideratu zituzten eta autoak, berriz, Tolosa barnetik; trafikoa arratsalderako erabat normaldu zen.

## iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47- beheak  
TOLOSA  
Tel.: 943 65 50 37  
Faxa: 943 65 09 44  
e-maila: ennio@innoennio.com  
www.innoennio.com

**Alegia.** bi logela eta bi bainugela. Trastelekuarekin. 40 m<sup>2</sup>-ko terraza. Estreintatzeko, guztiz berriua izan ondoren.

**Asteasu.** 250 m<sup>2</sup>ko etxe bifamiliarra salgai. Eraikuntza berrikoa!

**Amezqueta.** Etxe abikia salgai.

**Belautza.** Eraikuntza berriko etxe bifamiliarra. 462.780 euro.

**Bidania.** Eraikuntza nahiko berriko etxe bifamiliarra salgai. Oso egoera onean.

**Hernalde.** Etxe bifamiliarrak ederra salmantan. Eraikuntza nahiko berria.

**Ibarra.** Garaje ibi eta irekiak salgai.

**Ibarra.** Bi logela, egongela, sukaldia eta bainugela. Dena kanpoaldera. Berokuntzarekin. Bizitzera sartzeko moduan. 210.355 euro.

**Tolosa.** Erdialdean eraikuntza berriko etxebizitzak. Hiru eta lau logelekin, terrazak, sukaldia hornitua. Garajeekin.

**Tolosa.** Alde Zaharrean hainbat etxebizitzak salgai 168.285 eurotik aurrera.

**Tolosa.** Erremeritari. Hormigoizko egitura. 2 logela. Oso egoera onean. Trastelekuarekin.

**Tolosa.** San Esteban auzoa. 3 logela. Oso eguzkitsua. Dena kanpoaldera. Berokuntzarekin.

**Tolosa.** Geltokialdean. Eraikuntza

berria. Bi logela, egongela, sukaldia, bi bainugela, bi terraza eta bi lorategi. Behean: garajea, komuna eta txokoa.

**Tolosa.** Zezen-plazan. 87 m<sup>2</sup>ko etxebizitzak. Berritzeko. Igogailuarekin.

**Tolosa.** Foruen etorbidean guztiz berriutako etxebizitzak salgai.

**Tolosa.** Laskurain. 80 m<sup>2</sup> dituen etxebizitzak. Bizitzera sartzeko modukoa. 297.500 euro.

**Tolosa.** San Frantzisko ibilbidean 120 m<sup>2</sup>-ko eraikuntza berriko etxebizitzak salgai.

**Tolosa.** Trinkete. Garajea alokairuan.

**Tolosa.** San Frantzisko-Pedro Tolosa inguruan, toki paregabean!

Lau logelako etxebizitza ederra, [garajearekin salgai.](#)

**Tolosa.** Pablo Gorosabel. Taberna alokairuan.

**Tolosa.** Pablo Gorosabel. 40 m<sup>2</sup>ko bulegoa alokairuan.

**Tolosa.** Usabal. 2.000 m<sup>2</sup>-ko pabilioi industrialia alokairuan.

**Tolosa.** Guadalupe. Pabilioia salgai. 228 m<sup>2</sup> beheko aldean eta 148 m<sup>2</sup> goialdean. [Prezio interesgarria!](#)

**Villabona.** 24.400 m<sup>2</sup> dituen lursaila eta 140 m<sup>2</sup>-ko borda.

**Zizurkil.** Eraikuntza berriko 640 m<sup>2</sup>-ko pabilioia. 9 metroko altuera. Kamioientzako 2 sarrera, bulegoak, komunak, aparkalekuarekin...

**SASKIBALOIA ▶**

## Aralarrek 66-51 garaitu du Asti Leku Usabalen

**I.ASENSIO**

66-55eko garaipen garrantzitsua lortu zuten Aralarrek seniorrek joandako larunbatean Asti Leku Tsunami Portugaleteko taldearen aurka Usabalgo kiroldegian jokaturiko partidari.

Bi taldeek «partida txarra» egin zuten arren, tolosarrek arazorik gabe kontrolatu zituzten lehen hiru laurdenak (23-16; 13-6 eta 18-14), eta laugarrenean (13-15) behera egin bazuten ere, ez zuten arazorik izan defentsan oinarrituriko partida hau irabazteko.

Kadeteek 68-22 irabazi zuten G.B.C. Zarautzen aurka eta infantilek ere garaipena lortu zuten, 31-17ko emaitzarekin Goierri K.E.-ri inposatu. Infantil B taldeak, berriz, 45-31 galdu zuten Andraitx K.E.-ren aurkako partidari.

**TELEFONOAK ▶**
**Larrialdiak. ((112))**
**Osasuna.**

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212  
 ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423  
 ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134  
 ▶ **Ibarralde.** Osasun etxea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irua.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

**▶ Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amarozk dispens.: 672637

▶ Asunzion Klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536

▶ **Gurutze Gorria:** 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930

**Garraioak.**

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ **Taxia:** 670420

▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016

**Besterik.**

▶ **Ertzaintza:** 538820

▶ **Tolosa-Udaltzaingoa:** 675858

▶ **Tolargi:** 650016

▶ **Iurreremendi egoitza:** 670325

▶ **Tolosa gasa:** 675320

**PILOTA ▶**


## Abel Barriola kantxetara itzuli da

**I. Asensio ▶** Kantxetara bueltatu zen atzo Abel Barriola leitzarra, lehiaketatik urrun eduki duen 6 hilabetetako fibrosia gaindituta. Ebaketara behartu duen eskuko ehunetako gaitza atzean utzita, garaipena lortu zuen atzokoan, Capellan lagun zuela, Eugi eta Laskuraini 22 eta 13koarekin irabazita. Barriolak partida bikaina burutu zuen, eta Capellanekin batera, hasiera-hasieratik kontrolatu zuen lehia. Hilabetetan jasan duen lesioa ahaztuta, leitzarrek bere joko onena erakutsi zuen bere berragerupenean, Tolosako Beotibar pilotalekura joandakoen pozerako. Abel Barriolak, beraz, badu pozik egoteko arrazoirik. INIGO ASENSIO

**FUTBOLA ▶**

# Tolosak 0-2 irabazi du Lagun Onaken aurka Garmendipen

Romerok 47. minutuan eta Elolak 79.ean sartu zituzten Tolosako golak

**INIGO ASENSIO**

Tolosak garaipen berri bat erdietsi zuen larunbat arratsaldean, Garmendipe zelaian Lagun Onaken aurka jokaturiko derbi gipuzkoarrean. Bigarren zatian lorturiko bi golekin garaipena eman zieten urdinei, azpeitiarrak gainditu ondoren lehen postuetan ondo kotatuta jarraitzen dutela.

Lehen zatian berdintasuna nagusi izan bazen ere, Romerok 9. minutuan egindako jaurtiketa desbideratu batek eta Anttonek zutoinera botatako beste jokaldi batek tolosarren gehiagotasuna utzi zuten agerian. Bigarren zatia hasi berri zela, Romeroren golak abantaila eman zion Luluagaren taldeari. Lagun Onak erasora joaten saiatu zen, arrakasta gutxiz, eta 70. minutuan Elolak lorturiko boleazko gol ikaragarri batek epaitua utzi zuen norgehiagoka. Azken minutuan azpeitiarrek aukerarik izan zuten arren ezin izan zioten markagailuari buelta eman, eta hiru puntuak tolosara etorri ziren. Jose Manuel Luluaga entrenatzaileak balorazio oso positiboa egiten du lorturiko garaipenaz. «Guretzat garrantzitsua



Luluaga pozik ageri zen lorturiko garaipenarekin. LEIRE MONTES

da oso garaipena lortu izana, hiru puntu hauek goran jarraitzen laguntzen digutelako». Honez gain talde tolosarraren entrenatzaileak denboraldia orokorrean eramaten ari diren moduz arto sentitzen da. «Mailaz igotzean denboraldi berria nolako izango zen ez genekien zehazki, baina orain dugun egoera ikusita pozik egoteko arrazoiak ditugula esan daiteke».

Luluagaren mutilek Laudiorren kontra egin beharko dute datorren larunbatean Berazubin, berebiziko garrantzia izango duen neurketa batean. Tolosak 40 punturekin 3. postuari heltzen dion artean, Laudio-ko

6. dira 34 punturekin. Luluagak talde indartsutzat jo du talde arabarra. «Eteiz kanpo gure mailan dagoen talderik indartsuena iruditzen zait eta goran amaituko duenaz ziur naiz». Horregatik garaipena bereziki garrantzitsua litzateke urdinentzat hiru puntuek lehen postuetan finkatzeaz gain, etsai zuzeneko bat atzean uzten lagunduko luketelako. «Tolapikoa bada ere, hurrengo partidari pentsatu behar dugu. Irabaziz gero aurrera begira jarraitzeke, baina nekez pentsa dezakegu ezertan asteburuan galduta; horregatik, hain zuzen ere, pentsatzen dugu beti epe motzean», onartzen du Luluaga.

**LAGUN ONAK ▶ 0**
**TOLOSA ▶ 2**

**Lagun Onak.** Tejera; Jon Saizar; Tena; Odriozola; Ayuso; Inigo Saiza; Aranburu; Santeseban (Etor, 72 m.); Sagarzazu; Kristofer; Sarasola (Arrue, 63 m.).

**Tolosa.** Apeztebea; Lacalle; Unai; Ion; Iban; Artola; Antton (Crespo, 54 min.); Romero; Aiert; (Aierbe 82 m.); Orue; Regillaga (Eloa 70 m.).

**Golak.** 0-1: Romerok (47m.); 0-2: Elolak (79m.).

**J. M. LULUAGA**

ENTRENATZAILEA

«Guretzat garrantzitsua da oso garaipena lortu izana, hiru puntu hauek goran jarraitzen laguntzen digutelako»

gag. Oraingo, bi lehen saikatuak Sestao eta Gernika dira, 49 eta 42 punturekin. Tolosarren atzetik, berriz, Baskonia eta Amorebieta daude, 39 eta 34 punturekin.

## ZIZURKIL ▶ TORTURAREN AURKAKO EKITALDIK



Zizurkilgo hilerrian dagoen Joxe Arregiren hilobian lore eskaintza egin zuten atzo. I. GARCIA

# Arregiren omenaldian egun ere «torturatzen dela» salatu dute

Lore eskaintza egin zioten atzo hilobian eta herenegun ekitaldia burutu zuten bere izena daraman plazan

## ERREDAKZIOA

Torturaren Aurkako Eguna izan zen atzo, Zizurkilgo Joxe Arregiri egindako omenaldia bihurtu zena. Orain 25 urte hiltzeraino torturatu zuten zizurkilgo, eta bere oroimenez hainbat ekitaldi burutu dituzte pasa den asteburuan.

Lore eskaintza egin zuten atzo Arregiren hilobian bere senideek eta bertaratu ziren herritarrek. Herenegun, ekitaldia egin zen omenaldia izena daraman plazan. Aurretik, monolitoan omenaldia egin zioten. Oinez joan ziren 15 bat lagun eta beste hainbeste zuden zain monolitoan bertan.

Ibilaldiaren ondoren, plaza-

ra 150 bat lagun bildu ziren. Juan Manuel Erasun Zizurkilgo alkate ohiak hartu zuen hitza eta orain 25 urteko gertaerak gogora ekarri zituen: «Euskal Herriarentzat, eta, bereziki Zizurkilentzat, oso egun gogorak izan ziren. Ordutik, euskaldun askok pairatu dituzte torturak».

«Erakutsi zenigun bidea jarraituko dugu, Euskal Herriaren askatasuna eta independentzia lortzeko», jarraitu zuen Erasunek, Arregi oroituz. Egungo egoera politikoari buruz ere hitz egin zuen: «Bake prozesuari buruz asko hitz egin da, baina oraindik ez dugu ezer lortu. Eta horretarako, zuk ondo dakizun bezala, ezibeste-

koa da antolatzea. Denok egin behar baitugu zerbait, abagune historiko hau gal ez dezagun».

Erasunen hitzen ondoren, Amaia Agirre bertsolari biltzarren txanda izan zen. Saioa amaituta, aureskulariek agurra dantzatu zuten plazan bertan dagoen orogariaren aurrean. Ekitaldiarekin amaitzeko, Askatasuneko kide batak hartu zuen hitza.

## «Gerra apustua»

Arregiren gorpua ekitaldia egin ari ziren plaza berera eramán zuten eguna gogoratu zuen Askatasunaren izenean hitz egin zuenak: «Orduan hun-

kiduraz eta asalduraz hitz egin zuten politikari asko ez dira akordatu ere egingo, ez zutaz, ez egun haietan adierazi zutenaz. Alegia, torturaren kontra ahoberoki esan zutenari bizkarrak emanez, tortura baliatu zuten tresna erreprezio bezala Ertzaintza sortu eta berehala».

Gasteizko Legebiltzarreko biktima-batzordean «ez dago lekurik estatuen borroeroek eragin duten mina ikertu eta onartzeko», salatu zuen. «Tortura bera ere beren agendatik kanpo, inpunitate osoz jarraituko dute erabiltzen, orduz geroztik ez baita ezertxo ere aldatu: egun, tortura errealtate bat da», gaineratu zuen.

Euskal Herrian «torturatzen dela» alderdiek eta politikariek badakitela esan zuen Askatasuneko ordezkariak. Horrez gain, Arregiren torturatzaileak aske daudela salatu zuen: «Bere hilketa arduradun bat Kanariar uhartertan dabil, polizia lanetan, goi kargu izatera iritsi delarik. Torturaren erabilpena sahistu beharrean, indartu eta egokitu egin da Euskal Herrian».

«Tortura Estatuaren apustua da, gerra apustua, eta «Euskal Herriaren aurka ari zeko ezinbesteko tresna dute, adierazi zuen. «Ez dago demokraziarik. Halako apustuak ez baitira kabitzen inolako demokraziatan», azpimarratu zuen, halaber.

«Indar armatu arrotzek alde egin behar dute Euskal Herri-tik. Torturatzaileek alde egin behar dute Euskal Herri-tik», esan zuen Askatasuneko kideak. «Konponbide demokratikoa dugu premiazko erronka, eta ahalegin horretan euskal herritar guztien parte-hartzea ezinbestekoa da. Modu berean, ezin daiteke ekidin beste baldintza prozesua guztiz demokratikoa izan dadin: okupazio indarrek edota Auzitegi Nazionalaren jardunak ezin dute indarrez tutelatu aipatutako prozesua. Horregatik, konponbidean aurrerapausoak eman nahi badira, agenda politikoan sartu beharko da indar armatu arrotzen alde egitea».

## HEZKUNTZA ▶

## Jesusen Bihotzan matrikulatzeko aukera zabalik

Jesusen Bihotza Ikastolak matrikulazio kanpaina hilaren 17a arte zabalik dagoela gogoratu du eta dei egin die gurasoei beren haurrak bertan matrikulatzeko. Zizurkilgo eta Villabonan dituen erailkinak zentroak. Azken urteetan «proiektu pedagogiko berritzaileak» aurrera daramatzala azaldu du Ikastolak, eta «eskeintzen dituzten zerbitzuak zabalitzen ari direla» zehaztu dute.

## VILLABONA ▶

## Fleming eskolak bideo emanaldia eskainiko du gaur

Fleming eskolak, matrikulazio kanpainaren baitan, bideo emanaldia eskainiko du gaur Arroako eskolan. Lehenengo saioa 16:30ean izango da eta bigarrenegoa 18:00etan. Eskolako ekintzak, metodologia eta proiekturaren azalpen orokorra egitea du helburu proiektzioak.

## KALDEREROAK ▶

## Entseguak egingo dituzte Iruran eta Ibarren

Kaldereroek aurten Anoetatik Irurara egingo dute bidea. Ostiralean izango da eta 18:00etan bilduko dira Anoetara plaza. Entsegu orokorra egingo da, 19:00etan, Irurako Kulturunean. Loatzo musika eskolakoeekin. Ibarren gaur egingo dute entseguak. Uzturpe Ikastolako musika gelan, 19:30ean, eta zartagiarekin joateko eskatu dute antolatzaileek. Herri horretan ere Loatzo musika eskolarekin batera ariko dira.

## IRURA ▶

## Udal liburutegi eta ludotekarako laguntzailea

Irurako Udalak langile bat kontratatzeari ekingo dio, udal liburutegian eta ludotekarako laguntzeko hil honen bukaeran eta martxoan zehar, lanaldi erdiz. Interesik duenak udal horretako bulego orokorretan aurkeztu dezake curriculum vitae-a hilaren 20ra bitartean.



- Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta D.B.H.
- Kalitatezko hezkuntza euskalduna
- Eguneratua eta irekia
- Denen artean bultzatua eta zuzendua

**MATRIKULA EPEA:**  
**Otsailaren 6tik 17ra**

**Matrikulazio Ordutegia:**  
© 943 65 46 13-65 29 32  
9:00-13:00 - 15:00-18:00  
anoeta@ikastola.net





**(2-9 URTE)**  
**Lehen Hezkuntza**

**'HAZI ETA HEZI HERRIAN BERTAN'**

San Migel, 5 • 20271 IRURJA • Tel.: 943 69 43 74 • irura@ikastola.net



AGENDA 21 ▶

# Bozue, San Lorentzo eta Uli landa eremuko udaltalde berriak

Donostian elkartu ziren udaltalde sortu berrietako hainbat alkate, Agenda 21 proiektuan sartuak izan direnen testigu



Donostian, Aldundian, elkartu ziren udaltalde berrietako alkateak eta hainbat politikari. N. URBIZU

## NEREA URBIZU

Atzokoan Tokiko Agenda 21 betetze prozesuak beste pauso garrantzitsu bat eman zuten: Gipuzkoako udalerrri guztiak, Alegia izan ezik, prozesuaren barne daude jada. Beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko Garapen Iraunkorraren aldeko Ingurumen Estrategian ezarritako helburuak «eraz gainditu» ditu: 5000 biztanletik goragoko udalerrri guztiak Tokiko Agenda 21 diseinatuta izan beharko dute, banaka dela edota eskualdeka dela.

Aurreneko udaltalde 2000. urtean sortu zen, eta beranduago 10 udaltalde gehiago sartu ziren. 2006 urte honetan Uli, Bozue eta San Lorentzo

udaltaldeak eratu dira. Hiru hauek Tolosaldekoak dira. Uli udaltaldeak Errezil eta Beizama ere hartu ditu berarekin. Gaztelu, Leaburu, Lizartza eta Orexarekin batera. San Lorentzo udaltalde Berastegi, El-duain, Berrobi, Ibarra eta Belauntza herriek osatua da. Bozue deiturikoak, aldiz, Abaltzisketa, Alto, Amezketa, Baliarrain, Ikaztegieta eta Orendain herriak hartzen ditu bere gain.

Hauek, aurretik osatutako landa ingurune udaltaldeak bezala funtzionatu dute. Al-biztur, Bidegoian, Larraul eta Alkizak osatutakoa, alegia. Hiru udaltalde berriek 12.377 biztanle dituzte orotara, Gipuzkoako biztanleriaren %1,77.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko Saila, Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorretako Departamendua, Mendikoi eta Tolomendi dira proiektuan parte hartu duten erakundeak, eta lau helburu hartu dituzte kontuan, denetan ere «metodologia egokia aplikatu». Horien artean «gida tekniko bat idaztea» zegoen, eta izena ematek urte batera idazten da gutxi gorabehera.

Metodologia egokitzaren beharra «ezinbestekotzat» jotzen dute landa eremuetan, Eusko Jaurlaritzaren eskutik; «izan ere, hirietan bizi den jendearengan pentsatua baitago Agenda 21». «Landa eremuak garrantzi estrategiko bizia duela zehaztu zuten prentsaurrekoan, «batez ere nekazaritza eta abeltzaintzari lotutako erabileren etorkizunak balditatzaten duelako eremuaren balioen kontserbazioa, besteak beste».

## Landa eremuez

Luis Mari Oiarbide Garapen Eramangarrirako Foru Diputatuak eman zion hasiera, atzo, Donostian egindako prentsaurrekoari eta, hark aipatu zuenez, «prozesu luzekoa baina interes handiko ibilbidea da egin behar dena, hiru udaltalde berri hauen beharrak ere asetzeko».

Esther Larrañaga aholkulariak hasiera batean ezarritako helburuak «areagotu egin dira» adierazi zien hara joandako udaltalde berriko alkateei. Larrañagak azaldu zuenez, «landa eremua izatea oso garrantzitsua bezain berezia da. Biztanleriari dagokionez dentsitate eta kopuru txikiak izan arren landa eremuak azalera handia hartzen du, eta kultur eta natur ondarearen gordailu da».

Besteen artean, planetaren etorkizuna gizakion eskuetan dagoela ere gogoratu zuen Larrañaga aholkulariak, eta horren alde lan egiten ari den jendeari nahiz erakundeiei eskertu egin zien. «Prozesuaren hasieran gaude, eta jarraitu egingo dugu lan egiten», gehitu zuen Larrañagak, alboan Garbifé Olaberria Tolomendiko kide eta landa eremuko udaltalde 21 pilotuko teknikaria zuela.

Beraz, Tolosaldeko herri gehienak Agenda 21 proiektuaren barne dira dagoeneko, hainbat udaltaldetan banaturik: «herriarren beharrak, herriarren partehartzearekin» asetuko dituen proiektuan.

## AMEZKETA ▶

### Informatika ikastaroa eskainiko du MAE enpresak

Etxez etxe pasatuko dira egunotan, saioei buruzko informazioa emateko

## ERREDAKZIOA

Aurreko urteetan bezala, MAE enpresak informatika ikastaroak emango ditu Amezketa udalaldean dagoen balio anitzeko gelan. Enpresa honek 16 urte darrazta informatika erakusteko akademiarik ez dagoen herrietan ikastaroak antolaten.

Aste honetan, enpresa honetako langileek etxez etxeko bisitak egingo dituzte eduki, prezio eta ordutegi buruz informatzeko ikastaroan parte hartu nahi duten lagunei. Interesa duenak 943 376 979 telefono zenbakira dei dezake informazioa lortzeko.

## AMEZKETA ▶

### Talai-dantza entseguak aste honetatik aurrera

## N. URBIZU

Talai-dantzarako entseguak egingo diete aste honetan Amezketa. Entseguetako egunak asteazkenetan eta ostiraletan izango dira, 20:30etik aurrera, udaletxearen azpian dagoen aretoan.

Dantzatu behar duten guztiak joatea ezinbestekoa izango da, dantza egiteko egunak hilaren 26a eta 27 dira kontuan izanik.

## Informatikako ikastaroak Amezketa

Aurreko urteetan bezala M.A.E. enpresak informatika ikastaroak emango ditu Amezketa udalaldean dagoen balio anitzeko gelan. Aste honetan, enpresa honetako langileek etxez etxeko bisitak egingo dituzte eduki, prezio eta ordutegi buruz informatzeko ikastaroan parte hartu nahi duten bizilagunei.

Interesa duenak dei dezala 943 376 979 telefono zenbakira.

**ABURUZA** Eraikuntzak, S.A.

Kale Berria, 46 behea • Tel.: 943 69 02 97 • Fax: 943 69 00 52 • 20150 VILLABONA

IBARRA ▶ ARETO FUTBOLA

# 2-3ko emaitzarekin hartu du mendean Ibarrak Cerverano

David Pradosek azken unean sartu zuen golak eman zion garaipena taldeari

ERREDAKZIOA

Maila handia eskaini zuen Ibarra areto futbol taldeak larunbatean Cerveranoren aurkako partidari, eta hiru puntu batu ahal izan zituzten. Etxetik kanpo jokatu zuten ibartarrek, Cerveran (Errioxa), eta aipatzekoa izan zen Jose Manuel Tobias arduradunaren esanetan, partidari zuten giro bizia, kiroldegiko harmailak leporaino beteta zeudela.

Bi taldeek gogor ekin zitoten hasieratik, eta Ibarra nagusitasuna hartzen joan bazen ere, etxeko taldea izan zen lehen dabiziko gola egin zuena. 8. minutuan izan zen, kontraera-

so baten ondorioz Cerveranok gola egin zuenean. Segituan iritsi zen, ordea, berdinketaren gola, minutu bat beranduago, hain zuzen; David Pradosek sartu zuen kontraeraso bat burutu eta gero. 1-1ekoa zen. Berdinketarekin iritsi ziren atsedaldira.

Bigarren zatian ere bi taldeak maila handia erakutsiz atera ziren. Hainbat aukera sortu ziren ate batean zein bestean, baina atezainen geldituei esker, ez zen golik iritsi 35. minutu arte. Cerverano izan zen kontraeraso bat burututa Mikel Sanz Ibarraok atezaina gainditu eta gola egin zuena. Handik gutxira, Hautsik alderatze batetaz baliatuz, bi taldeak

berdinu zituen. 2-2koa zen. Gol horrek min handia egin zien etxekoei. Partidaren azken unean aurkitzen ziren eta edozer gerta zitekeen oraindik. Eta, hala izan zen. 5 segundo falta zirela, eta Ibarra atezaina ere aurrean jokatzeko ari zela, David Prados baloiarekin egin, eta atezainaren aurrean geratu zen bakarrik, jokaldia baselinaz amaituz. Ibarraokentzat hirugarren gola igo zen markagailura. 2-3ko emaitzarekin amaitu zen partida.

Ibarra areto futbol taldeko jokalaririk guztien lana izan zen azpimarratzeko modukoa, baina Mikel Sanz atezainarena bereziki, gelditu garrantzitsuak egin baitzituen. Atezainaz gain,

Unai Labakak, David Pradosek, Hautsi Izagirrek eta Ustaritz Errondosorok jokatu zuten hasieratik, eta aldaketak egin eta gero, Xabier Blanch, Mauro Ayerza, Sino Sanz, Jon Ander Karrera eta Lander Camio ere aritu ziren. Igor Zabalo izan zen ordezkotza atezaina.

Gazteak ere garaile

Jubenilen taldeak Sestaoren aurka jokatu zuen larunbatean Belabieta kiroldegian, eta erraz lortu zuen garaipena, 7-3ko emaitzarekin. Ibarra-Uzturpe kadeteak, berriz, 6-0 Donostiako Karmelori irabazi ostean, lider postuan aurkitzen dira.

BERASTEGI ▶

## Podologoaren bisita izango da hilaren 25ean

Podologoaren bisita izango du Gaztainondo elkarteak hilaren 25ean, 09:30etik 12:15era. Ordua hartzeko, elkartera bertara jo edo 943 68 32 64 edo 943 68 32 02 telefono zenbakietara deitu.

TOLOSA ▶

## Udaberri dantza taldean parte hartzeko deialdia

Udaberri taldeak dei egiten die 15 urtetik gorako neska-mutuei dantza taldean parte hartzera. Interesatuak astelehenean, asteazkenean edo ostiraletan agertu beharko dute Igarondo igerilekura, 20:30ean, edo bestela 699 02 66 18 telefono zenbakira deitu (Aritz).

IBARRA ▶

## Indiari buruzko erakusketa Kultur Etxean

Ibarrik Misio Taldeak antolatuta, *Calcuta: begirada zabalik* argazki erakusketa dago ikusgai Kultur Etxean. Calcuta Ondoan elkarrekin Indian dituen proiektuaren eta bertako egoeraren inguruko argazkiak ikusteko aukera eskaintzen du erakusketak. Bihar izango da azken eguna.

BERROBI ▶

## Gaur hasiko da xake ikastaroa liburutegian

Gaur ekingo diote herriko gaztetxoek Udalak antolatutako xake ikastaroari. 18:45ean izango da, liburutegian, eta pasa den ikastaroan izandakoak eta estraineko aldi ariko direnek hartuko dute parte.

BELAUNTZA ▶ KULTURA



## Peruko egoera ezagutzeko proiektzioa etzi

I. Terradillos ▶ Belauntzako Kultur Etxean, 20:00etan hasita, Peruko egoerari buruzko argazki proiektio bat izango da ikusgai, etzi. Hain zuzen ere, Ainhua Arregi belauntzarrak hiru hilabete igaro zituen pasa den urteko udan Peruko Cuzco hiriko Hattun Sonccowasi aterpetxean, lankidetzara programa baten barruan, eta bertan atera zituen argazkiekin osatuko du emanaldia. Aterpetxe horri esker ikasketak jarraitzeko aukera dute inguruko herrialdeetako gaztetxoek. Proiektzioa ikustera joaten direnek Peruko paisaia ezberdinen argazkiak ikusi, eta aterpetxean egiten duten lana ezagutu ahal izango dute. HITZA

iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13  
**VILLABONA**  
Tel.: 943 69 68 56  
mug.: 616 93 17 88



**Aduna.** Bifamiliarra salgai. 150 m<sup>2</sup> eta 60 m<sup>2</sup>-ko garajea. Kalitatezko berrikuntza. Luxuzkoa.  
Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Andoain.** Eraiki berria den etxebizitza ederra salgai. 3 logela. Garaje itxia. Oso polita. Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Bidanía.** Eraiki berria den bifamiliarra salgai. Egoera ezin hobean. Informa zaitez!  
Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Ibarra.** Etxebizitza polita salgai. Berritua. Sukalde-jangela, hiru logela eta bainugela. Kanpoaldera. 41.000.000 pezeta.

**Legorreta, Berrobi eta Albiztur.**

Egoera oneko baserriak, lursailarekin. Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Segura.** Banakako baserria, lursailarekin. Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Tolosa.** 96 m<sup>2</sup> dituen etxebizitza salgai. Hiru logela, trastelekua eta garajearekin. 309.000 euro.  
Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Zizurkil.** Egongela, sukalde, 2 logela eta bainugela dituen etxebizitza. Bizitzera sartzeko moduan. Trastelekuarekin. Etxesagasti. 943 69 68 56.

▶ **TOLOSALDEKO HITZA.INFO**

**Eztabaida.** Laster iritsiko dira Inauteriak, eta moztarok pentsatuak izango dituzte herritarrek. Zertaz moztarotzea pentsatu duzu? Zein uste duzu litzatekeela aurtengorako moztarorik egokiena? Eman zure iritzia gure webgunean! ▶

iragarki laburrak ▶

LANA

**Tabernaria.** Anoetan, neska euskalduna behar da taberna 4 orduz lan egiteko. Eskarmentua duena. Interesatuak deitu 635 74 52 91 telefono zenbakira.

URREZKO AIZKOLARIEN TXAPELKETA ▶

# Rekondok eta Otañok aurrerako txartelak eskuratu dituzte

Banakako Txapelketan aurreneko kanporaketak jokatu dira; Binakakoan Mindegia eta Senosiain igaro dira finalera

JAIONE ASTIBIA

Igandean jokatu zituzten Urrezko Aizkolarien Banakako Txapelketako lehen kanporaketak, bi Leitzan bertan eta beste lau Bobedan, Araban. Gure bi eskualdeetatik joanak hiru aizkolari zirelarik, bi sailkatu egin ziren: Jon Rekondo leitzarra eta Unai Otañok ibartarra; Jexux Mari Mujika, beste ibartarra, kanpoan gelditu zen.

Leitzako kanporaketan, Rekondo Esnaolarekin lehiatu zen; Mujika, berriz, Mindegia-ekin. Ez zuten emaitza bera eskuratu ordea. Hiru lan egin behar izan zituzten: 45na ontzako bi enbor ebakitzea, bat zutik eta bestea etzanda, eta azken saioan, kana-erdikoa eta 60 ontzako. Rekondo proba guztietan gailendu zitzaion Esnaolari. Aurreneko enborrean, zutikeoan, jarri zuen alde leitzarrak, «oso gustura aritzen naiz modu horretan», baieztatu zuen berak, atzo. «10 aldiz bakarri aritu naiz zutikakoan baina oso ongi aritu nintzen», ziurtatu zuen. Alde horrekin baliatu zen sailkapena irabazteko, gainerako lanetan ere irabazi bazuen ere.

## Indarrak ahituta

«Etzandako 45ekoa bukatzerako indarrrik gabe gelditu nintzen. ahituta», aitortu zion Hitzari berak. «Indarrez Donezteben-eta baino okerrago jarri nintzen. Bigarren enborra bukatzerako indarrrik gabe gelditzen naiz eta ez dakit zergatik den. Datorren egunetan hori

## BANAKAKOIA ▶

### KANPORAKETAK

#### Denborak.

A. kanp.	I	II	III
<b>1. Rekondo</b>	<b>1:39</b>	<b>0:53</b>	<b>5:36</b>
2. Esnaola	2:57	1:08	5:44
<b>B. kanp.</b>			
1. Mindegia	2:15	1:03	4:51
<b>2. Mujika</b>	<b>2:41</b>	<b>0:57</b>	<b>5:04</b>
<b>D. kanp.</b>			
<b>1. Otañok</b>	<b>1:57</b>	<b>0:51</b>	<b>5:00</b>
2. Mendieta	1:56	1:13	5:40

aztertu behar dut», zioen kezak, nahiz sailkapena gairiditu.

Leitzako saioan zen Mujika ere. Hiru lanetatik etzandako 45 ontzako ebaki zuen Mindegia baino azkarrago; gainerakoetan mantsoago ibili zen. Berak Hitzari adierazi dionez, «ez nago puntu-puntu; gainera, zutik batere aritzeko nago eta aste honetan jakinarazi didate hola ere ebaki behar genuela enborra. Azken egun hauetan egunero horretan aritu naiz, bestetan ez; eta horien kaltean, orain oharatu naizenez».

Azken lanean, berriz, ezinean aritu zela esan du: «Hobe beharrez azal-aizkorarekin [handiagoa izaten da] aritu nintzen, lan motzetan gehiago egiten omen dela eta, baina niri ez zitzaidan hala atera. Gainera, arbegia ere atera zitzaidan 60ekoa», azaldu zuen. Edozein moduz, «txapelketako txispa falta zait», adierazi zuen. Ibartarra kanpoan gelditu zen, ondorioz.

Baina besteak aurrera jarraituko du. Otañok Bobedan jokatu zuen kanporaketa eta

erraz lortu zuen sailkatzea. Honek ere froga guztiak irabaziko zituen, zutikako segundo bakarreko atzerapenagatik izan ez balitz; ibartarrari aizkora-kiderra hautsi zitzaion eta aizkora epaian sartuta gelditu zitzaion. Hala ere, segundo bakkarra kendu zion Mendieta.

## Prestaketan bizkor

Egindakoarekin gustura, berak eta Lasak Olasagastirekin jokatzeko duten apusturako egiten ari diren prestaketek emaitzan zerikusia badutela baieztatu zigun ibartarrak, «bezperan froga bat eginak ginen eta eskua eta giharrak pisu samar nabaritu nituen», argitu zuen. «Gainera, beti kezka izaten da aurreneko kanporaketaneta», gaineratuz. Kezka kezka, bere lana ongi egin zuen.

Banakako Txapelketa honetako beste hiru sailkatuak, berriz, honako hauek dira; Lasa, Flores irabazita; Zubiaga, Elgorriari gailenduta; eta Rodriguez espainiarra, Llanos menperatuta.

Banakakoa hasi zen jaialdi berean, Leitzan, jokatu zen, bestalde, Binakako aurreneko finalerdia ere, Mindegia-Senosiain eta Peñagarikano-Azurmendi bikoteen artean, eta aurreneko horiek sailkatu ziren finalerako, 18 segundoko aldearekin, zaletuen oihu artean. Bikoteak finalean izanen dituzten arerioak Mugertza-Arros-pideren edo Nazabal-Erdoziaren arteko lehiaren ondoren jakin dituzte.



## Txirrindulari bat larri

**LEITZA/ISTRIPUA** ▶ Atzo eguerdian, Areso aldetik Leitzalderako norantzan, Vanpac lantokiaren parean, txirrindulari bat «larri» zauritu zen, Foruzainen esanetan, dirudienez, «errepide bazterrean geldirik zegoen kamioi baten aurka talka eginda». D. A. Z. leitzar gizaseme gaztea berehala eraman omen zuten eritetxera ambulanzia medikudun batean. Istripuaren gaineko ikerketak egiten aritu zen arratsaldean zehar Polizia Forala, istripua gertatutako lekuan. J. ASTIBIA

## LEITZA ▶ PILOTA

# Hirugarren partidua jokatzera behartuta

Bengoetxeak eta Ruizek 22 eta 17 galdu dute Titin III.a eta Pascualen aurrean

J. ASTIBIA

Final-laurdenetako bigarren partidua jokatu zuten ostiral gauean Oinatz Bengoetxeak eta Patxi Ruizek, Titin III.aren eta Pascualen aurka. Aurrekoa irabazita izaki, bigarren hau ere hala egitea zuten helburu, hurrengo faserako sailkapena eskuratzeko.

Baina ez zen holakorik suertatu. Gorriak, Titin-Pascual bikotea gailendu zuen, 22 eta 17ko emaitzarekin, partiduko puntua eurenganatu. Eta, hortaz, sortu zen berdinketa hausteko hirugarren partidua jokatzera behartuta daude.

Gorriek Azkoitian azaldu ez zuten indarra eta joko azale-

ratu zuten, ohikoa duten moduan jokatu zuten, Titinek sekulako partidua egin zuen, 8 tanto bereak izan ziren. Eta Pascualek ez zuten hutsik egin, eta atzeko koadroetan nagusi izan zen. Laurak ere halaxe aritu baziren ere, Asegareko bikotea, are presakago, urduriago, aritu zen pilotan, eta markagailua gorrien aldeko gelditu zen.

Orain, berdinketa hausteko partidua jokatzekoak dira astea bukatzerako, hain zuzen ere jokatu den bakarra; izan ere, beste hiru bikote sailkatuta baitaude: Olaizola I.a-Otxandorena, Olaizola II.a-Zearra eta Martinez de Irujo-Martinez de Eulate.

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

**Gipuzkoan 50.000 etxetara**

HITZA guztietan prezio beragatik

**ESKELAK** Telf.: 943 65 56 95  
19:00ak arte hartzen dira tolosaldean@tolosaldeko hitza.nfo

## eskertza ▶

### Victoriano Arrazola Elorza



Biziki eskertu nahi dugu Victorianori azken agurra ematera hainbeste lagun elkartu izana eta jaso dugun maitasuna. Mila esker zuen adiskidetasunagatik eta une samin hauetan gurekin bat egiteagatik.

Arrazola Iturbe sendia

LEGAZPI, 2006ko otsailaren 14a



**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Alkiza.** Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak irri-terapia ikastaroa antolatu du ostegunetan, 19:00etatik 21:00etara, Kultur Etxean. Izen-ematea, Mankomunitatean (943 69 39 30).

**Amezketak.** Inauterietako talai-dantza saioetarako entseguak. Asteazkenetan eta ostiraletan, 20:30ean, udaletxe azpian.

**Berastegi.** Gaztainondo jubilatutako elkarteak podologoaren bisita jasoko du hilaren 25ean. Aurrez izena eman behar da, elkartearen bertan, 16:30etik 19:30era, edo 943 68 32 64 eta 943 68 32 02 telefono zenbakietan.

**Tolosa.** Arrigorriagatik Laudiorako mendi irteera antolatu du Alpino Uzturrek igandean. Pastorekorta, Ganekogorta eta Kamaraka gailurrak igoko dituzte. 6 orduko ibilaldia da. Izen-ematea, Alpino Uzturren (Gudari, 5).

**Tolosa.** Eresoinka abesbatzan aritutako kantarietarako bazkaria antolatu dute datorren igandean, hilaren 19a. Informazio gehiago jaso edo izena eman nahi duenak 625 70 36 84 edo 677 43 89 49 telefono zenbakietara deitu behar du.

**Villabona-Aiztondo.** Emakume Egunari buruzko kartel lehiaketa zabaldu dute Adunak, Andoaingo, Asteasu, Larraulgo, Villabonako eta Zizurkilgo 16 urtetik gorakoentzat. Izen-ematea, Andoaingo Bastero kulturgunean.

**ERAKUSKETAK**

**Ibarra.** *Calcuta: begirada zabalik.* Bihar arte ikusgai, Kultur Etxean.  
**Tolosa.** Luis Mari Nuñez



**Gerontologiko berria eskatzeko sinadurak**

**TOLOSA ▶** *Eta orain zer?* Gerontologikoaren itxiaren aurkako plataforma sinadurak biltzen ari da egunotan zentro berri baten alde. Larunbatean, esaterako, Tolosako hainbat puntutan jarri zituen mahaiak (argazkian, Trianguloan). Sinatzaileak honako testuarekin bat egiten du: «Euskal Herri plazako Gerontologi-

koaren itxierak sortu dituen arazo larriak direla-eta azpian sinatzen dugunok Gerontologiko berri, publiko eta kalitatezkoa exijitzen duguk». Dagoeneko 800dik gora sinadura jaso dituzte azaldu diote HITZARI plataformakoek. Datorren egunotan ere mahaiak jartzeko asmoa agertu dute. I. GARCIA

margolanak. Hilaren 25a arte izango dira ikusgai, Aranburu Jauregian.  
**Tolosa.** Paco Polanen argazkiak. Martxoaren 11 arte, Aranburu Jauregian.

**HITZALDIAK**

**Tolosa.** Lan arloaren inguruko hitzaldia: kontratu motak, ETTak, langileen eskubideak... Bihar, 19:00etan, Otsabi lokalean (Kondeko aldapa). Sanblaspiko Gazte Asanbladak antolatuta.  
**Villabona.** 2006rako gazte

*erronkak.* LABeko kideen eskutik. 19:30ean, Gaztebtxean.

**INAUTERIAK**

**Ibarra.** Kaldereroetako entseguak (zartagiarekin). 17:30ean, Uzturpe ikastolako musika gelan.  
**Tolosa.** Zaldunita bezperako danborradarako entseguak. Gaur, bihar eta etzi, 20:00etan, Kultur Etxean; eta hilaren 21ean, 20:15ean, Musika Eskolan.  
**Tolosa.** Arpegi taldeak Ostiral Mehean Beotibar pilotalekuan

eskainiko duen *Zirkuko mutilak* ikuskizunerako sarrerak salgai daude Triangulo kafetegian, Cantabrico eta Atodo tabernetan, 6 eurotan.  
**Tolosa.** Haur danborradan mikeltelez ateratzeko lau plaza daudela azaldu du Aiz-Orratz elkarteak. 7 urteko haurrei egindiete deialdia. Interesa duenak elkartera agertu behar du, ostegun edo ostiraletan, 19:00etan.  
**Tolosa.** Udalak Udaltzaingoa trafikolaguntzaileak kontratatuko ditu Inauteri egunetarako.

Tolosan erroldatua egotea eta ikastaroak egin izana baloratuko dute. Euskara azterketa egingo zaie. Izen-ematea, udaletxean, informazio bulegoan.

**IKUS-ENTZUNEZKOAK**

**Belauntza.** Ainhoa Arregi belauntzarren argazki proiektioa, Peruko Cuzco hiriko Hattun Sonccowasi aterpetxean, iazko udan, lankidetzara programa baten barruan ateratako irudiek. Etzi, 20:00etan, Kultur Etxean.

**ZINE-KLUBA**

**Alegia.** Sam Mendes zuzendariaren *Camino a la perdicion* filma. Bihar, 21:30ean, Gaztebtxean.  
**Tolosa.** Gerardo Herrero zuzendariaren *El principio de Arquimedes* filma. Etzi, 21:30ean, Kultur Etxean.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Ibarra.** Iturriz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.  
**Leitza.** Plaza, M. Elbarren, 35. 112.

**IRRATIA**

**Txolarre irratiak (107,5, 101.2 FM)**  
**11:00-14:00.** *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia, Joxe Landarekin, agenda, Hitzaren errepaso, albisteak, elkarriketak, disko eskainiak...  
**18:00-19:00.** *Adi guri* irratsaioa, Anoetako Herri Ikastolako DBHko 1. eta 2. mailako ikasleek prestatzen duten saioa.  
**19:00-21:00.** *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).  
**21:00-22:00.** *Zaharrak berri*, Irulegi irratiak eskainitako saioa, Arosa Irrati Ekoizpen Zentroaren eskutik.  
**22:00-23:00.** *Street noise* musika saioa.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
Anne Agirre Etxeberria (Alegia).  
Gaur 2. urte. Aiton-amona eta osaba Patxiren partetik zorionak.



**ZORIONAK, AINHOA**  
Ibarra mamuruxari hamar muxu potolo.



**ZORIONAK**  
Ebeke pottin ere xahartzen ari zaigu. Familiaren partetik.

**HITZA, zorion agurren tartea**  
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:  
**HITZAren egoitzara:** Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA Udaltzako bulegoa - LEITZA  
**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!**